



XIRULA MIRULA

Musika Hezkuntzarako Saialekua
Catalina de Erauso, 12 - Tel. 46 35 55
20010 DONOSTIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, EKONOMIA, LAN
ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
ECONOMIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

1 8 ABR. 1995


SARRERA	IRTEERA
Zk. 394	Zk. —

Donostia, 17 de Abril de 1.995


" XIRULA MIRULA " MUSIKA ELKARTEA, en asamblea extraordinaria celebrada el dos de Enero de 1.995 acuerda abrir en Bilbao otra sede de XIRULA MIRULA MUSIKA ELKARTEA, cuya razón social es Zababide, 34 -1º C . 48.006 BILBO


Y para que conste junto a los Estatutos de esta asociación, firman la presente,

El Presidente.


Manuel Ma Uribeta Beristain

La secretaria.


Ainhoa Barterra Fernandez



XIRULA MIRULA MUSIKA ELKARTEA

bazkunearen sortarauak.

LEHENENGO KAPITULUA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZUZENTZA ZAILA
Bazkunei Erroidea

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Registro de Asociaciones

***IZENA.**

***Lehengo atala.**

Xirula Mirula Musika Elkartea izenpean, Eusko Legebiltzarrak onartua eta Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren 9. atalean esandakoarekin bat doan Bazkun Otsailaren 12ko 3/1988 legean esandakora egokituz, Bazkune bat sortzen da.

Bazkun hau aipaturiko Bazkunei buruzko legeen prezeptuak, legearekin kontraesanean ez dauden Sortarau hauek, bere Eraentza-sailak hartutako akordioak, legea edota Sortareuen aurka ez daudenean, eta soilik osatze indarra izango duen Eusko Jaurlaritzak onartutako araudi-bidezko manuak zuzendua izango da.

***DITUEN HELBURUAK**

***2. atala.**

Hauek dira Bazkune honen helburuak; aberasteko asmorik gabe:

1.- Xirula Mirula musika metodoaren zehaztasunak sakontzea, ikertzea, berritzea eta ezagutzera ematea.

2.- Xirula Mirula metodoaren bidez musikarekiko sentiberatasuna eta sormen artistiko-korporala piztea.

3.- Haur eta gazteen gaitasuna eta ahalmena kontutan harturik, musikaren lantzea bultzatzea.

4.- Aipatu kultura musikal honetan komunikazio, hizkuntza euskara izatea.

5.- Euskal kulturan txertaturiko kultura musikala bultzatzea.

6.- Halaber herri musika bultzatzea.

***Helburu hauek burutzeko, ezarririk dauden aldezaurreko baldintza legalak bete ostean, Bazkunak bere helburuak betetzeko 3/88 legea errespetatuz egoki ikusten dituen ekintzak burutuko ditu.

***BAZKUN-EGOITZA:**

***3. atala:**

Bazkun honen bazkun-egoitza Catalina de Erauso 12 , Donostian izango da.

Bazkunak, Batzorde nagusiak erabakitzen duenean, Komunitate Autonomo barruan edota kanpoan beste lokal batzu eduki ahal izango ditu.

Bazkun-egoitzaren bai eta Bazkunak dituen bestelako lokalen aldatzeak Artezte-batzordeak erabakiko ditu, Bazkun-erroldeari adieraziz.

***LURRALDE-EREMUA:**

***4. atala:**

Eskola honen funtzioak garatuko direneko lurralde-eremuak, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba barnertzen ditu (badago gainontzeko

probintzietara zabaltzeko asmoa ere, hots; Nafarroa, Lapurdi, Zuberoa eta Behe Nafarroara).

DEPARTAMENTU
Registrazioa

***5. atala:**

Horretarako, aukeratu esparru geografikoetan, Xirula Mirula izenpean, sorkuntza musikala pizteko kultura musikaleko gune ezberdinak sortuko dira.

Gune musikalki hauek, alde pedagogikoari dagokionean, Biltzar Nagusiaren menpe egongo dira, horretarako honek markaturiko direktrizak jarraitu beharko dituelarik.


***6. atala:**

Aipatu gune musikalek, bere ekintzaren gestioa eta finantziarioari dagokionean autonomia osoa izango dute, Bazkunaren martxan Biltzar Nagusiari dagozkion azken ahalmenen kaltetan gabe.

IRAUPENA

***7. atala:**

Xirula Mirula Elkartea deituriko Bazkuna izaera iraunkorrez sortzen da eta soilik 6. kapituluak dioenaren arabera, aparteko Biltzar Nagusiaren akorduz ezabatuko da, edota legeetan alde aurretik ikusitako edozein arrazoiengatik.



BIGARREN KAPITULUA

ERAENTZA ETA ARDURALARITZA-SAILAK

***8. atala:**

Bazkunaren eraentza eta arduralaritza ondorengo Bateango ihardutze-sailen esku izango dira:

-Bazkideen Biltzar Nagusia, gorengo ihardutze-sail bezala.

-Artezte-batzordea, zuzendaritza iraunkorrako bateango ihardutze-sail bezala.

BILTZAR NAGUSIA

***9. atala:**

Bazkide guztiek osoturiko Biltzar Nagusia, berauen nahien adierazten dituen ihardutze-saila da. Sesio arrunt eta aparteko sesioetan batuko dira.

***10. atala:**

Biltzar Nagusia, sesio arruntean, behintzat, urtean behin, lehenengo hiruhilabetekoan, bildu beharko da, Bazkunaren jokaeraren plan orokorra, aurreko urteko kontuen egoera, gastu eta sartze egoera eta urrengo urterako aurrekontua baieztatzeko asmoz, bai eta Artezte-batzordearen gestioa, zeinek beti horren artezpideei atxikiz eta zaingopean egon beharko duen.



*11. atala:

Aurreko atalean esandakoaren kaltetan Nagusiaren egitekoak dira ondorengoari dagozkion akordioak:

- 1.- Ondorengo atalean ikusitakoarekin bat Araudiaren modifikazio eta aldaketak.
- 2.- Artezte-Batzordea hautatzea.
- 3.- Hala egokituz gero, Bazkunaren ezabapena.
- 4.- Beste Bazkunebatzuekingo baterakundeak eta elkarkundeak egitea, edo horietako batetik ateratzea.
- 5.- Urteko diruegitamu eta dirukontu-garbiketaren baieztapena.
- 6.- Koordinazio pedagogikoa eremu geografiko guztian kokaturiko gune musikal ezberdinetan.
- 7.- Hala egokituz gero, Bazkuneko bazkide-sariak finkatu.
- 8.- Bazkunaren organizazio eta funtzionamendu on bat lortzeko beharrezko diren neurriak hartu.
- 9.- Bazkunaren jokaera programak onartu.
- 10.- Sortarauen garapenaren erreglamendu eta arauak onartu.

*12. atala:

Artezte-Batzordeak erabakitzean, Biltzar Nagusiak bilduko da aparteko sesioan, bai berezko inizatibagatik bai bazkun hiruren batek eskatzen badu, batzarraren zergatia eta helburua adieraziz, ondorengo gaiak ezagutu eta erabakitzeko:

- a) Araudiaren aldatzea.
- b) Bazkunaren ezabapena.

****13. atala:**

Biltzar Nagusiaren deialdiak, arruntak zein ~~apartekoak izan~~ idatziz egingo dira, lekua, data eta batzarraren ~~ordua~~ adieraziz, bai eta eguneko aztergaiak ere.

Deialdiak eta lehenengo deialdiko batzar egunaren artean, behintzat, 10 eguneko aldea egon behar du; halaber, hala egokituz gero, bigarren deialdirako data adieraziko da, batzar bat eta bestearen artean bi orduko tarte egin egon daitekeelarik.

Iragarkian bigarren deialdirako data jarri gabe badago, batzarraren dataren aurretik bi egun lehenago egin beharko da deialdia.

**** 14. atala:**

Biltzar Nagusiak, arruntak nahiz apartekoak, ongi eraturik egongo dira, lehenengo deialdira presente edo errepresentaturik bazkideen kopuruaren erdia gehi bat agertzen badira, eta bigarren deialdian bazkideen kopurua edozein delarik.

Bazkideek Biltzar Nagusira joateko beraien errepresentazioa, beste bazkideren bati eman diezaiokete. Errerepresentazio hau idatziz emango da eta idatziak Biltzarraren Idazkariaren esku egon beharko du, behintzat sesioa hasi baino bi ordu lehenago. Bazkunak bazkun-egoitza daukan lekutik kanpo bizi diren bazkideek errepresentazioa ziurtatzen duen agiria postaz bidali ahal izango dute.

**** 15. atala:**

Biltzar Nagusien erabakiak, botuen gehiengo sinplearen bidez hartuko dira, sortarauek gai konkretuetarako gehiengo kualifikatuak ezartzen dituen kasuetan salbu.

ARTEZTE-BATZORDEA

*** 16. atala:**

Artezte-batzordea bost kidek osotuko dute: Lehendakariak, Lehendakariordeak, Idazkariak, Diruzainak eta bokalak.

Behintzat, hiruhilabetetan behin bildu beharko dira bai eta Bazkunaren ekintzen garapen egokiak eskatzen duen guztietan ere.

****17. atala:**

Artezte-batzordeko kideek, batzar jakinetan, justifikazio gabeko hiru asistentzia huts jarraian edo tartekaturiko bost huts egiten badituzte, beraien kargua utzi beharko dute.

****18. atala:**

Artezte-batzordea Bazkunearen ihardutze-sail beterazlea da. Bere kideak bazkideen sufragio zuzen eta sekretuaren bidez aukeratuko dira.

Hautezkunde bakoitzeko baldintzak Biltzar Nagusiak ezarriko ditu, behintzat honako puntu hauek bete beharko direlarik:

a) Hauteskundeak ospatuko dira hiru urtero, behintzat.

b) Hauteskundeetarako deialdia, gutxienez, finkaturiko data baino hilabete bat lehenago zabaldu beharko da.

c) Kandidaturak idatziz aurkeztu beharko dira gutxienez hauteskundeak baino hamabost egun lehenago, ~~postutara aurkezten den adieraziz.~~

~~EUSKO JAURLARITZA
Batzordeko Zain
GOBIERNO VASCO~~

~~ZUZENTZA ZARLA
Bazkunen Erreleko~~

d) Kandidatu bezala Bazkuneko kide guztiak ~~aurkeztu daitezke~~ beraien egiteen jakitun direlarik.

~~Registrazio Batzordea~~

e) Hautesle bakoitzak hautagai diren Artezte-batzordeko postu guztiei eman ahal izango die botua.

f) Artezte-batzordeak aukeratuko du hauteskunde prozesuaz eta arakapenaz arduratuko den hauteskunde-mahaiaren osaketa.

g) Postu bakoitzeko kandidatura bakarra agertzen bada, hautagaia automatikoki izendatua izango da eta ez da bozketarik egin beharko.

h) Hauteskunde prozesua bukatu eta 72 ordutako epe baten barruan, kandidatuek hauteskundearen emaitzari kontra egin diezaioke hauteskunde-mahaiaren aurrean.

*19. atala:

Artezte-batzordea osotzen duten kideak Biltzar Nagusiak aukeratuko ditu eta hiru urte iraungo dute, honen kentzea salbu, amaigabe aukeratuak izan daitekeelarik.

*20. atala:

Artezte-batzordea osatzeko honako betebeharrak izan behar dira kontutan:

- a) Sortarauetan aipatu bezala izendatua izatea.
- b) Erakundeko bazkide izatea.
- c) Gara-adinekoa edo gara-adinera gabeko iarea izatea eta eskubide zibilak osotasunean gozatzea.

*21. atala:

Artezte-batzordeko kide kargua hartuko da, Biltzar Nagusiak hautatua izan ondoren, bere kargua onartu edo jabetzen duenean.

Karguak dohakoak izango dira, halere, ~~hala ere~~ gero, Biltzar Orokorrak dieten eta gastuen abonuak ezar ditzake.

*22. atala:

Artezte-batzordeko kideek ondorengo kasuetan utziko dute kargua:

- a) Aginte epearen betetzea.
- b) Dimisioa.
- c) Bazkide izateari uztea edo ezgaia bihurtzea.
- d) Sortarau hauetako 19. atalean ikusitakoaren aplikapenez Biltzar Nagusiak erabakitako kentzea.
- e) Hiltzea.

a) atalean aipaturiko arrazoiengatik uzten bada, Artezte-batzordeko kideek beraien funtzioetan jarraituko dute urrengo Biltzar Nagusia burutu arte, orduan kargu berrien hautaketa eginez, Araudiak dioenaren arabera.

b), c), d) eta e)n Artezte-batzordeak betetzeko den postua behin-behineko izendapen batez beteko du. Izendapen hau Biltzar Nagusiaren esku utziko da berrespen edo kentzea erabakitzeko, Araudiak dioenaren arauera.

Organu honen osaketan ematen diren aldaketa guztiak Bazkun Erroldeari adieraziko zaizkio.

****23. atala:**

Artezte-batzordearen funtzioak hauek dira:

a) Bazkunearen agizko eraentza zuzentzea, Biltzarrek emandako artezpideei atxikiz eta horren zaingopean.

b) Bazkunak garatu beharreko ekintzen programazioa.

c) Urteko gastu eta sarrera aurrekontua bai eta aurreko urteko kontuen egoera Biltzar Nagusiaren onarpenaren esku uztea.

d) Biltzar Nagusiko batzarren eguneko aztergaiak osotzea, bai eta Biltzar Nagusi arrunt eta apartekoen deialdia erabakitzea.

e) Bazkideek adierazitako proposamen eta iradokizunei kasu egin, horien aurrean beharrezko diren neurriak hartuz.

f) Biltzar Nagusiari espresuki ez dagokion bestelakoren bat.

****24. atala:**

Artezte-batzordeak bere sesioak Lehendakariak edo Lehendakariordeak, hala behar izanez gero, erabakitzen duen guztietan burutuko ditu, norberaren erabakiz edo batzordeko beste norbaiten eskariz. Lehendakaria izango da buru, eta bere faltan Lehendakari-ordea; eta biak faltan badaude, adin gehien duen batzordeko kidea.

Batzordeak hartutako erabakiak baliogarriak izan daitezen, bertan daudenen arteko gehiengoaren aldeko botuekin hartuko dira, horretarako kide kopuruaren erdiak bertan izan behar duelarik.

Sesioetatik, Idazkariak dagokion liburuan transkribatuko den agiria altxatuko du.

IHARDUZTE-SAIL UNIPERTSONALAK

LEHENDAKARIA

***25. atala:**

Bazkuneko Lehendakariak bazkunaren legezko ordezkari bere gain hartzen du, eta Artezte-batzordeak eta Biltzar Nagusiak, bietako lehendakari izanik, hartutako erabakiak beteraziko ditu.

***26. atala:**

Lehendakariaren egitekoak izango dira Artezte-batzordeari edo Biltzar Nagusiari espresuki ez dagozkien ahalmenak, eta bereziki:

a) Artezte-batzordeak eta Biltzar Nagusiak burutu beharreko sesioak bilerazi eta bukatutzat eman, bata eta bestearen deliberazioak zuzendu eta bozketan berdinketa ematen den kasuan kalitateko botuz erabaki.

b) Artezte-batzordeari Bazkunaren ekintza plana proposatu, beraien egitekoak bultzatu eta zuzenduz.

c) Legez erabakitako ordaintzeak agindu.

d) Ager daitezkeen premiazko asuntoak konpondu, honen berri burutzen den lehenengo sesioan Artezte-batzordeari emanaz.

LEHENDAKARIORDEA

***27. atala:**

Lehendakariordearen lana Lehendakaria lagundu eta ordezkatzeari izango da, honek sasoi batez bere kargua bete ezin badu.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZUZENTZA ZAILA
Bazkunaren Erroidea
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Asociaciones

Halaber, Lehendakariak espresaki bere gain uzten dituen bestelako ahalmenak izango ditu.

ERUSKIN BILKURTA
GOBIERNO VASCO

ZUZENDAZAIA
Bilgortzen 1983

ERUSKIN BILKURTA
GOBIERNO VASCO

IDAZKARIA

*28. atala:

Idazkariak, konkretuki, sartzeko eskariak jaso eta bideratu beharko ditu, fitxeroaren eta bazkideen Errolde-liburuaren ardura izango du bai eta agiri-liburuaren zaintzearena eta idazketarena ere.

Modu berean, Bazkunen inguruan dauden disposizio legalen betetzea zainduko du, erakundearen dokumentazio ofiziala zainduz, bazkuneko liburu eta artxibuen edukia egiaztatuz eta Artezte-Batzordearen hautatze eta bazkun egoitzaren aldaketeei buruzko jakinerazteak dagokion Agintaritzari heleraziz.

DIRUZAINA

*29. atala:

Diruzainak egindako sartze eta ordaintzeen kontu emango du, sartzeen eta gastuen urteko aurrekontua egingo du bai eta aurreko urteko kontuen egoera ere. Hauek Artezte-batzordeari aurkeztu behar zaizkio, modu berean, Biltzar Nagusiaren onarpena jaso dezaten.



HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEEI BURUZ: ONARPEN PREZEDURAK ETA MAILAK

*30. atala:

Bazkuneko kide izan daitezke horrela nahi dutenak eta, gara-adineko norbanakoa edo gara-adinera gabeko iarea izanik, ondorengo baldintzak betetzen dituenak: euskeraz ihardu eta Xirula Mirula metodoa ezagutu eta bertan murgiltzen dena.

**31. atala:

Bazkuneko kide izan nahi dutenek eskaera, bi kidek abalaturik idatziz egin beharko dute eta Lehendakariari zuzendua. Honek eskaeraen berri Artezte-batzordeari emango dio, zeinak onartzea ala ez onartzea erabakiko baitu, azken kasuan Biltzar Nagusira errekurritu ahal izango delarik.

**32. atala:

Artezte-batzordearen akordioz, Bazkunak ohorezko bazkideak izenda ditzake bazkuneko kide izateko beharrezko diren baldintzak betetzen dituztelarik, Bazkunean egin beharrekoak heuren presentzia fisikoarekin bete ezin dutenak. Bazkide hauek, soilik, ohorezko bazkide dira, eta ez Bazkunaren Gobernu eta Administrazioarena. Ohorezko bazkideak eginkizun guztietatik aske daude.



***BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA EGINKIZUNAK**


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZUZENTZA ZAILA
Bazkunen Erroidea

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Registro de Asociaciones

***33. atala:**

Bazkide orok eskubidea du:

*1) Bazkunei buruzko legea edota Sortarauen kontra dauden erabaki eta ekintzak inpugnatzeko: inpugnazio hau, eskatzaileak akordioaren edukia ezagutu eta 40 egun naturaletara dagoen tartean egin behar izango du.

*2) Edozein momentutan, Bazkuneko beste kideen nortasuna ezagutzeko; sartze eta gastuen kontu egoera eta honen ekintzaren garapena ezagutzeko.


*3) Biltzar Nagusietan boza eta boturako eskubidea izateko, bere errepresentazioa beste kide batzuri konferitzeko aukera izanik.

*4) Sortarau hauen arabera, Bazkunaren zuzendaritza ihardutze-sailean parte hartzeko, horientzat hautesle eta hautagai izanik.

*5) Indarrean dagoen leislazioan ikusitako bazkideen fitxeroan agertzeko eta, edukitzekotan, Bazkunaren emblema erabiltzeko.

*6) Sortarauen ale bat izateko bai eta barne gobernamentuko erreglamentuarena ere baldin balego, eta zuzendaritza ihardutze-sailen aurrean eskaerak eta kexak aurkezteko.

*7) Ekintza sozial kolektiboetan parte hartzeko eta bazkideen erabilpenerako zuzenduriko elementuak gozatzeko (lokal soziala, liburutegiak...) Artezte-batzordeak, kasu bakoitzean, erabakitzen duen eran.



*8) Idatziz entzuna izateko, disziplinazko neurriak hartu baino lehenago eta haien arrazoiez ohartuta, zeinak bakarrik bazkidearen eginkizunak ez betetzean oinarrita izan daitezkeen.

*34. atala:

Bazkideen eginkizunak dira:

*a) Bazkunearen helburuak lortzeko parte hartzea.

*b) Biltzar Orokorrak ezartzen dituen kuoten aldizkako ordainketaren bidez, gastuen sostengarrian laguntzea, holan erabakitzen bada.

*c) Sortarau hauek eta Bazkunaren organu errektoreek hartutako akordioak onartzea eta betetzea.

***ZIGORTZE-JAURPIDEAK**

*35. atala:

Artezte-batzordeak bazkideak zigor ditzake Sortarauak edo Biltzar Nagusiko zein Artezte-batzordeko akordioak behin eta berriz hautsiz gero.

Zigorrak izan daitezke, 15 egunetik hilabete baten bitarteko epean eskubideen etenduratik hasi, erabateko banatzeraino, 37. ataletik 40. atalera -biak barne- agertzen diren terminuetan.

Egoera honen aurrean, Lehendakariak zigorgarri izan daitezkeen portaerak argitzeko, ikerketa bat zabaltzeko erabakia har dezake. Egite hauek Idazkaritzaren esku egongo dira, beharrezko neurriak Artezte-batzordeari proposatuz. Zigorren ezartzea Artezte-batzordearen ahalmena izango da eta aurretik interesatuaren entzunaldia egongo da.

Beti motibatua izango den akordio honen aurka, Biltzar Nagusiarengana zuzentzeko aukera egongo da, 33.1 artikuluan araututako akzioen iharduera salbu.

BAZKIDE KONDIZIOAREN GALTZEA

*36. atala:

Bazkide kondizioa honako kasuetan galduko da:

- 1) Hiltzean.
- 2) Norberaren borondatez banatzean.
- 3) Artezte-batzordeak, zigor baten ondorioz erabakitako banaketa erabakitzean, ondorengo kasua agertzean:

* Sortarau hauetan eta Biltzar Nagusian eta Artezte-batzordeak legez erabakitako betebeharren deskonplimendu grabe, errepikatu eta nahita ematen denean.

*37. atala:

Bazkide bat aurreko atalean aipatutako azken egoeran egonea gero, Lehendakaritzak Idazkariari aurreko eginbide batzu agindu ahal izango dizkio, informazio egokia lortzeko honen aurrean, Lehendakaritzak iharduketak artxibatu, 35. atalean agindutako eraz zigorrezko espedientea edo banaketa espedientea zabaltu agindu ditzakeelarik.

*Azken kasu honetan, Idazkariak, gertaerak egiaztatu ondoren, interesatuari idatzi bat emango dio leporatzen dizkioten karguak adieraziz, hauei erantzuna eman ahal izango dizkielarik bere defentsarako egoki dagokiona esanez 15 egunetako epearen

barruan. Behin epe hau bukatuz gero, asuntua Artezte-batzordearen lehengo sesiora pasatuko da. Honek 2/3 aren ^{quorumarekin} egoki dena erabakiko du.

EUSKO LEHENDAKARITZA
GOBIERNO VASCO

ZUZENTZA ZAILA
Bazkunen Erroidea

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Registro de Asociaciones

*38. atala:

Banatze akordioa interesatuari adieraziko zaio burutzen den aparteko urrengo Biltzar Nagusian kontrako apelazioa aurkez dezakeela esanez. Eta hiru hilabetetan ez bada bilarazten, espresuki horretarako izan beharko da. Bitartean, Lehendakaritzak, inkulpatuak bazkide bezala zituen eskubideen galtzea erabaki dezake, eta Artezte-batzordean parte hartuko balu, kargua uztea erabaki beharko du.

Banaketa espedientea Biltzar Nagusira eramaten bada, idazkariak haren txosten laburra idatziko du. Artezte-batzordeak inkulpatuak aurkeztutako idatziaren berri eman diezaiokeen Biltzar Nagusiari, eta baita ere egitateen berri, behar den bezala, Biltzar Nagusiak dagokion erabakia har dezan.

39. atala:

Beti motibatua izango den banatze erabakia, interesatuari adierazi beharko zaio, hau tribunaleetara joan daitekeelarik -dagokion eskubideari ekinez- hori legea edota Sortarauen aurka dela uste duenean.



*40. atala:

Bazkide bati, norberak erabakitako edo zigor batek
eragindako Bazkunetik banatzea adieraztean, egitear dituen
eginbeharrak
-baldin baditu- betetzea eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

SORTZE-ONDAREA ETA DIRUEGITAMU-JAURPIDEA

*41. atala:

Bazkunaren sartze-ondarea, hau da, material didaktikoa eta
instrumentu musikalak, 500.000 pesetatakoa da.

*42. atala:

Ekintza sozialen garapenerako Bazkunak pentsatuak dituen
baliabide ekonomikoak honako hauek dira:

a) Hala egokituz gero, Biltzar Nagusiak ezartzen dituen
sartzeko kuotak.

b) Hala egokituz gero, Biltzar Nagusiak (34.b art. ikusi)
ezartzen dituen aldizkako kuotak.

c) Ondasunen produktuak eta dagozkion eskubideak, bai eta
legalki jaso ditzakeen diru-laguntzak, legatuak, eta donazioak.

d) Artezte-batzordeak burututako ekintzekin Bazkunak
eskuratutako sartzak, Sortarauen helburuetatik aldendu gabe.

BOSTGARREN KAPITULUA
ARAUDIAREN ALDAKUNTZA

***43. atala:**

Araudiaren aldakuntza, Artezte-batzordearen eskariz egin daiteke, edota, bere akordioz, bazkideen 1/3 ak eskatzen duenean. Edozein kasutan, Artezte-batzordeak hiru kidez osaturiko Ponentzia bat izendatuko du aldakuntza proiektua idazteko berak emandako direktrizak jarraituz eta proiektua amaitua egon behar dueneko epea finkatu beharko du.

***44. atala:**

Adierazitako epean aldatze proiektua idatzi ondoren, Lehendakariak burutzen den urrengo Artezte-batzordearen Eguneko aztergaien barruan sartuko du.

Artezte-batzordeak, onartu ala Ponentziara itzuliko du berriz ere iker dezaten.

Onartua bada, Artezte-batzordeak, espresuki helburu honekin deituriko aparteko Biltzar Nagusiaren eguneko-aztergaien barruan sartuko du.

***45. atala:**

Biltzarrerako deialdiarekin bat, Araudiaren aldakuntzaren testua emango da, bazkideek beraien ustez egin beharreko emendakinak, Idazkaritzan eman dezaten.

Hauen berri, Biltzar Nagusiari emango zaio, sesioa burutu aurretik zortzi egun lehenago Idazkaritzan baldin badaude.

Emendakinak banaka edo taldeka formula daitezke; idatziz eginak eta bestelako testu baten proposamena izan beharko dute.

*46. atala:

Araudiaren aldaketak bazkideen Biltzar Nagusian erabakiko da, bertan gehiengo absolutoaren gehiengo kualifikatuaren aldeko botoarekin.

SEIGARREN KAPITULUA

BAZKUNAREN EZABAPENA ETA

BAZKUN-ONDAREAREN APLIKAPENA

*47. atala:

Bazkunea ondorengo kasuetan ezabatuko da:

- 1) Bazkideen borondatez, hortarako deituriko Biltzar Nagusian bildutakoen gehiengo absolutuaren aldeko botoa izanik.
- 2) Kode Zibileko 42. atalean erabakitako kasuengatik.
- 3) Sententzia judizialagatik.

*48. atala:

Bazkuna ezabatzekotan, ezabatzea erabakitzen duen Biltzar Nagusiak, Artezte-batzordeko lau kidek osoturiko komizio likidatzaile bat izendatuko du. Komizio hau dauden fondoan arduradun izango da.

*Bazkideekiko eta besteekiko betebeharrak sozialak bete ondoren, soberan den Bazkun-ondarea -egongo balitz-Euskaltzaindiari emango zaio.

ALDI BATERAKO ERABAKIA

Konstituzio agirian probizionalki izendaturiko Artezte-batzordeko kideek, beraien izendapena, osatzen den lehenengo Biltzar Nagusiaren esku utzi behar dute.

AZKEN ERABAKIAK

Lehenengoa: Artezte-batzordea izango da Sortarau hauetan bilduriko aginduak interpretatu eta zuzentzeko, horretarako, beti, Bazkunen araudi legala kontutan hartuz eta bere baieztapenerako, ospatzen den urrengo Biltzar Nagusiari berri emanaz.

Bigarrena: Sortarauak Artezte-batzordeak eta Biltzar Nagusiak hartutako erabakien arabera aldatuak izango dira, bakoitzaren konpetentzien barruan eta 5. kapituluan ikusitakoa kontutan izanik.

Hirugarrena: Biltzar Orokorrak, barne-gobernamendu araudi bat onar dezake Sortarau hauen garapen bezala, honek bertan adierazitako aginduak aldatuko ez dituelarik.



Estatutuak kustu ondoen erantz. Errolda Nagusia sortarazten duen Euzko Legebiltzarraren 77/81 Lehen Dekretuaren arabera onartu eta garrantzerako manuekan ere zenabazatzen da. Aitorotzeko.

Visadoa, esan daiteke, Euzko Legebiltzarraren 77/81 Lehen Dekretuaren arabera onartu eta garrantzerako manuekan ere zenabazatzen da. Aitorotzeko.

Donostia, (ola) 1994ko Azaroak 25.

En _____ a _____

ERROLDEN KARDURADUNA

EL ENCARGADO DEL REGISTRO

Elkar



EUSKODUNARIARITZA
GOBIERNO VASCO

ZUZENTZA ZAILA
Bazkaren Errodea

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Registro de Asociaciones

G/4975/94